

6

artikulua



ingurugiroa

LAUDIO

natura eta bioaniztasuna

XXXII



Tokiko Agenda 21
Garapen Jasangarriaren Programa Laudion



Naturako espazioek, sarri asko, eraso ugari eta handiei aurre egin behar diete, hala nola suteak, basoetako landare mozketak orokor indiskrimatuak, higadura edo ingurugiroan zarata eraso bortitza jasanarazten duten aisialdiko jarduerak (motokrosa, ibilgailuen pasoa, e.a.).

Natura ingurunearen erabilera ez jasangarri baten efekturik nagusienetako batzuk izaten dira lurzorua galera higaduragatik, ibaietako ertz eta basterren ondatzea, landaredia eta faunako espezieak desagertaraztean eta paisajea ondatzea.

Udalerraren ingurugiroa hobetzeko pieza giltzarria izan behar da bere ingurumari natural guztia babestea eta gaur egun dagoen bioaniztasuna bizirauteko baldintzak eskaintzea, hau da, flora eta faunako espezieen iraunarazpena, kontserbazioa, eta dauden ekosistemena (basoak, ibaiak eta errekek, ...) kontuan hartu behar baituzue horiek bere baitan duten ekologia, paisaje eta aisialdirako balorea.

natura eta bioaniztasuna laudion

Ekoizpen jarduerak gizonaren presio indartsuaren menpean egon diren bitartean ingurugiroaren ezaugarrietan transformazio garrantzitsua sorrarazi duten arren, gure udalerriak badu, oraindik orain, neurri bateko ondare naturala, ekosistema naturalen arlo errepresentatiboen tarte batzuekin, pagadi, harizti, gaztainadi eta artedien presentziari esker.

Beraz, berreskurapen lor daitekeen paisaje baliabideak daude, Larraño eta Larra mendiak kasurako, eta beste leku batzuetakoak. Bestalde, Olarteko urtegia hor dago, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Zona Hezeen Arloko Lurralde Planean inbentariatuta, zerrendatuta dagoen hezegune artifiziala, erabil litekeena ingurugiro hezkuntzako jarduerak gauzatzeko.

Hala ere, irauten dute hor egonik zuzendu behar diren inpaktuak. Hor dago Nerbion ibaiaren ertzetako gainbehera eta erriberako formazioen ia desagertzea. Berriro landatu eta biziberritu beharko da.

aholkkuak

- Bertako produktuak eta garaikoak kontsumitu.
- Izadiak goza ezazu baina errespetatuz (natur-bideak erabili, zaborra estera ekarri eta kontuz suarekin).
- Txoko berdeak sortu herrian (baita etxe bakoitzeko balkoi eta terrazetan ere).

Jasangarritasunaren helburu orokorra:

- Pertsonen jardueren eragina gutxitzea sistema naturaletan
- Naturako baliabideen kudeaketa jasangarria bultzatzea
- Paisaje eta natura insteresa duten areak babestu eta lehengoratu-berreskuratu.



Laudioren Jasangarritasunerako
ekintza plana



Laudion zer egin da?

Laudioko Udala San Joan basiliza ingurumariaren eta basiliza beraren hobekuntzan ari da .

Laudion zer falta da egiteko?

- **Paisaje eta natura intereseko areak babestu eta biziberritu**


Aurreikusita dago, laster barru, Ermua Andre Mariaren lekuaren zaharberritzea eta babestea, izan ere, Santa Luzia jaiegunean erromes ugari bertara joan eta jai ospakizunak izan ohi dira. Orain dela gutxi Euskadiko monumentu multzoaren aitortpena jaso duen lekua edo parajea egokitu, zaharberritu eta babestea da egin nahi dena.

Aurreikusita dago, baita ere, Larrañoko baso parkeko aisialdi erabileraren harrera gaitasuna hobetzea, hala nola berriro landaketak egitea eta Larrako basoaren erabiltzea sustatzea.

- **Ekosistema akuatikoak babestu, hobetu eta bultzatu**

Ekosistema akuatikoaren gainean, planteatzen dena da Laudiotik pasatzen den parean Nerbion ibaiaren kanalizazioak eragindako azalaren ingurugiro aldetiko berreskurapenari ekitea, Areta eta Gardea bitarteko zatian.

Aldi berean, aurreikusita dago Olarteko urtegiaren erabilera proiektu bat egitea ingurugiro hezkuntzako xedeetarako, kontuan izanik bertan daudela intereseko espezie botaniko eta faunistiko batzuk.



Zer bait egiteke geratzen dela uzte baduzu, parte artu **Laudio denon arteko konpromisu bat**.

Hau da 13 artikuludun bildurraren zazpigarren alea. Bilduma egin nahi baduzu, udaletxetik aleak biltzeko karpeta eskeintzen dizugu, udaletxeko Hirigintza eta Ingurugiro arloan eskatu.